

KOSTUEN EGITURA

Gure kostu finkoak, lokalaren alokairua, webgunea apaintzeko kontratu dugun enpresa eta erabiltzen ditugun makinak daude. Alokairua 200 eurokoa da eta 100 euro balio duten bi makina ditugu, hilero ordaindu behar dugu.

Aterki baten unitate bat egiteko 5 euro gastatzen ditugu materialetan, hau da, plastikoak, barillak... Horrez gain, ura, argia eta elektrizitatea behar dugu gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Adibidez, elektrizitatea behar dugu telefonoa izateko eta horrela gurekin kontaktatzeko. Ordenagailua ere erabili behar dugu, amazonekin saldu ahal izateko eta gure bezeroekin ere kontaktatzeko.

Webguneari dagokionez, kostu batzuk aurreikusten ditugu. Webgunea apaintzeko eta profesionalagoa egiteko, enpresa bat kontratatu dugu. Enpresa horren eginkizunak, gure web erakagarriagoa bihurtzea eta erosoagoa egitea dira. Aurreikusten ditugun kostuak, hasieran webgunea egiteko ordaindu dugun prezioa eta hilero ordaindu behar dugun dirua dira.

Kostuak kontuan izanda, aterki asko saldu egin behar ditugu gure produktuaren salmenta errentagarria izateko.

Amazoneri bere plataforman saltzearen truke komisio bat ordaindu behar diogu. 44 euro ordaindu behar diogu hilero gure produktua salduz gero. Ez bada saltzen ez dugu ezer ordaindu behar.